



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2021.07.21

**Ordua:** 19:00tan

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIAK:

#### 1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/06/22ko akta aho batez onartzen da.

#### 2. ARANTZAKO HIRIGINTZAKO ARAUTEGIAREN BEHIN BETIKO ALDAKETA ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du Arantzako Udal Planaren hirigintzako arautegiaren aldaketak 2021eko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran jaso zuela hasierako onespena. Horri dagokionez, hasierako onespena 2021eko otsailaren 18ko 38. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta behin betikoa berriz, 2021eko apirilaren 30eko 99. Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Hala ere, hirigintzako arautegiaren aldaketa argitaratzean akats bat egin zela antzeman zen, izan ere,

honako hau ordenantza gisa tramitatu zen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, berez hirigintzako arautegi xehakatu bat bezala tramitatu behar zenean, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3 artikulua arabera. Hau dela eta, hasierako onespeneren akats zuzenketa eta behin betiko onspena balio gabe uztearen iragarkia 2021eko maiatzaren 28an 125. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Halaber, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1.a) artikuluan xedatutakoa ikusirik, hirigintzako arautegiaren aldaketaren hasierako onspena Nafarroako aldizkari editatuetan ere argitaratu zen 2021eko maiatzaren 26an (Diario de Noticias eta Diario de Navarra).

Zentzu horretan, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3. eta 72.1. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ikusirik jada pasa dela hilabete bateko jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe, idazkariak azaltzen du behin betiko onspena eman daitekeela Arantzako hirigintzako arautegi orokorreko, lur ez-urbanizagarriko eta dokumentazio grafikoko aldaketa xehakatuari.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Behin betiko onspena ematea Arantzako hirigintzako arautegi orokorreko, lur ez-urbanizagarriko eta dokumentazio grafikoko aldaketa xehakatuari.

2.- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoa jarraituz, Arantzako Udal Planaren hirigintzako arautegien behin betiko onspena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea orok jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

### **3. BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUKO KUDEAKETA MAHAIAN ARANTZAKO UDALAREN ORDEZKARI IZENDAPENA.**

Idazkariak azaltzen du 2021eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran Arantzako Udalak Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuko kudeaketa mahaian jardungo duen Udalaren ordezkari izendapena aurrerago aztertzeko uztea erabaki zuela, izan ere, gai honen inguruan hobekiago hausnartu nahi zuten.

Halaber, Bortzirietako bortz herrietan berdintasun zerbitzuak eman eta horiek kudeatzeko teknikariaren kontratazioa erregulatuko duen hitzarmena bortz herrietako Osoko Bilkurak berretsi dutela azaltzen du idazkariak. Hau horrela izanik, Igantziko Udalak (hau izanen baita hitzarmenaren buru) berdintasun teknikaria kontratatzeko Nafarroako Berdintasun Institutuko dirulaguntza jasotzeko dokumentazioa aurkeztu zuen eta Nafarroako Berdintasun Institutuak berretsi egin du aurkezturiko eskaera. Horrela bada, teknikariaren kontratazioa egin ahal izateko prozesuaren kudeaketekin ekin berri du Igantziko Udalak eta honako honen kontratazioa urria aldera izatea espero da.

Zentzu honetan, idazkariak Arantzako Udalak aipaturiko kudeaketa mahaian aritzeko ordezkariaren izendapenaren premia azpimarratzen du, izan ere, kudeaketak hasiak dira eta hemendik guttira kudeaketa mahaia biltzea espero da.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Markel Jorajuria Elizondo jauna izendatzea Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuko kudeaketa mahaian jardungo duen Arantzako Udalaren ordezkari.

2.- Akordio hau Igantziko Udalari jakinaraztea dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4. UEMAN ARANTZAKO ORDEZKARI ALDAKETAREN ONESPENA.**

Idazkariak UEMAn egiten diren kudeaketen berri ematen du. Horri dagokionez, azaltzen du nahiz eta orain arte Imanol Lukanbio jauna izan Arantzako Udalaren UEMako ordezkari, berez Leire Mitxelena anderea zela UEMAn jarduten zuena, izan ere, euskara arloan honek zituen erantzukizun gehien Arantzan.

Halaber, ordezkarien izendapen egoera egokitzekotan eta UEMaren aholkuak jarraituz, ordezkarien izendapenak zuzendu beharko liratekeela azaltzen du idazkariak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Imanol Lukanbio Larretxea ordezkari Leire Mitxelena Gamio izendatzea Arantzako ordezkari gisa UEMAn.

2.- Beñat Mitxelena Danboriena izendatzea Leire Mitxelena Gamioaren ordezkaria.

3.- Erabaki hau UEMari jakinaraztea.

#### **5. ALKATEAREN EBAZPENAK**


72/2021-77/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

#### **6. ESKAERAK ETA GALDERAK**

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 19:50ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,  
Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,  
Nagore Madariaga Iriarte

3

